

# Sanjuanak eta... oporrak



# TXIKITTO

2014ko ekaina

145



## Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

## Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,  
Koldo Mitxelena eta Eibarko  
ikastetxeetako ordezkariak.

## Administrazioa

Marisol Uriarte.

## Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri  
eta Koldo Mitxelena.

## Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa  
eta Koldo Mitxelena.

## Copyright-a

Txikitto!

## Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

EGUN batean andereñoa berandu heldu zen klasera eta umeez, bitartean, bihurrikeri asko egin zituzten. Gela hankaz gora ikustean, andereñoak umeei galdetzen hasi zen:

- Aizu, Ainhoa, zuk zer egin duzu?

- Nik, nik... mahaiak bota ditut lurrera...

- Manolito, zuk zer egin duzu?

- Nik, nik... arbelan margotu dut...

- Jaimito, zuk zer egin duzu?

- Nik serpentine bota dut lehiotik...

- Beno, hori ez da egon gaizki...

Bost minutu geroago neska bat sartzen da gelan, zauriz beteta. Andereñoak galdetzen dio:

- Zu nor zara?

- Ni... Serpentina naiz!!!!

YOUSSEF CHAAILAT

- AMATXO, zergatik dago aita ile gabe?

- Oso buruargia delako eta zer pentsa asko duelako.

- Eta, orduan, zergatik duzu zuk hainbeste ile?

- Jan zopa, txolin hori!!

ANE DEL PINO

ESATEN dio lagun batek besteari:

- Nire aitak orain dela hamar urte moztu zuen ilea.

- Zer da ba? Tximaluzea?

- Ez, burusoila.

ANER GUIASOLA

POSTETXEAN:

- Bost pezetako seilu bat, mesedez. Enplegatuar seilua ematen dio, eta bezeroak:

- Zenbat zor dizut?

MIREN GESTAL

GIZON bat, zineman dagoela, takilara joaten da eta neskak esaten dio.

- Hau da erosten duzun bosgarren sarrera. Zergatik?

- Atean dagoen tonto batek apurtzen dizkidalako.

MAITANE CALLES

- AMA, badakizu? Nire idazlanak zeharo hunkitu du andereñoa.

- Benetan diozu?

- Bai horixe: negargarria dela eta pena ematen duela esan dit.

LEIRE GUENAGA

KARTZELARA iritsi berria den batek galdetzen dio beste bati:

- Eta zu, zergatik zaude hemen?

- Ateratzen uzten ez didatelako.

IMAD KASSIMI

- AITA, aita, ikus ahal dezaket telebista?

- Bai, baina piztu ez.

- Aizu, zer ordu da?

- Hamabiak.

- Oi, ze berandu!

- Galdetzea zenuen lehenago.

ZAIN ALI

SOLDADU batek beste bati:

- Zertan ari zara?

- Nire emazteari idazten.

- Eta... zergatik idazten duzu hain poliki?

- Nire emazteak ez dakielako azkar irakurtzen.

- Zein da itsu baten akabua?

- Casimiro deitzea, Bista Eder kalean bizitzea eta okulista izatea.

IKER UNANUE

PIZZA bat kanposantuan zegoen negarrez. Beste batek galdetu zion:

- Familiarra zen?

- Ez; ertaina.

LUKEN MARTINEZ





**URKIZU IKASTETXEKOAK** maiatzean Fredy Igelaldi pelikula ikustera joan ziren. 1.go ziklokoak Sastarrainen (Zestoa) egon dira eta 2. ziklokoak, berri, Zarautzeko Igerain aterpetxean. Ekainaren hasieran, 3., 4. eta 5. mailako ikasleak Basondora egin zuten irteera.

-----  
Maiatzaren erdian, Azterkostari esker, bederatzi hormirudi izan ditugu **J.A.MOGEL IKASTOLAKO** aretoan, **IBAIALDI** izeneko programa barruan. Panel horien gaiak **URA** eta **IBAIA** dira. Hormairudi bakoitzean gaiaren arlo bat lantzen zenez, 4. mailako ikasleek taldeka banatu ondoren, atal horiek irakurri eta behatu zituzten, bertatik informazio ezberdina atera behar zuten-eta.



Bestalde, urtero, **J.A. MOGEL IKASTOLAKO** Eskoriatzako Museora bisitaldia egiten dugu, bertako historia eta etnografiako erakusketaz gozatzeko. Erakusgai dauden elementuekin eta liburuetan ikasitakoarekin, zibilizazioen aldaketak errezago ulertu ditugu.

Museoan goiz osoa ematen dugu; bertako erakusketa ikusi eta gero, tailer batzuk egiteko aukera izaten dugu. Aurten *Inprenta eta Idatziaren eboluzioa* aztertu dugu. Benetan ondo pasatu eta ondo aprobetxatu dugu 5.B-koek irteera hau.

**SAN ANDRES IKASTETXEKO** ikasle talde batek elkarrizketa egin zien Eibarko futbol taldearekin zerikusia duten bi aitei: Alex Aranzabal (presidentea) eta Gilvan Gomes (jokalaria).

Pentsatzen dugu berri hau interesgarria izan daitekeela bai ikasleen ekarpenengatik eta, baita, elkarrizketatuen adierazpenengatik ere. Atxikitzen dugu argitaratuta dagoen blog-eko helbidea.

**BLOGA:** [www.sanandres13-14.blogspot.com.es/](http://www.sanandres13-14.blogspot.com.es/)  
**LOTURA:** <http://6maila13-14.blogspot.com.es/search/label/S.D.%20EIBAR>



Hona hemen **ARRATEKO ANDRA MARIKO** berriak hiruhileko honetan:

Maiatzean HHko 3., 4. eta 5. urteko gure txikiak Donostiako Aquariumean izan ziren arrainak ikusten. Oso ondo pasatu zuten eta oso pozik etorri ziren. Maiatzaren 14an, 5. eta 6. mailakoak Madariaga Dorretxean izan ziren eta inguru polit hura ere ezagutu zuten.

Horretaz gain, 5. eta 6. mailakoek bertso jaialdian parte hartu zuten, zuetako batzuekin batera. Ospakizun polita osatzen dugu ezta?

Ekainaren hasieran Arratera joan ginen eta ekainaren 13an kurtso amaierako jaialditxo egin genuen. Ondo pasa oporrak eta hurrengora arte!


-----  
Kaixo lagunak! Azken txanpa falta zaigu bakarrik oporretarako eta animo! **LA SALLEN** maitzean egin ditugun ekintzak ondorengoak izan dira: 3. mailakoak ogigintzara joan ziren eta eurek egindako ogi goxoa ekarri ekarri zuten guk dastatzeko.

4. mailakoak artzai mundura joan ziren, gazta nola egiten den ikustera. Gantxillaren egunean ere parte hartu genuen eta eskolan *Izartxoren makro festa* ospatu genuen.

Ekainaren 4an, bestalde, 1. mailakoak *Mollie Malonen ipuin zinestezina* izeneko antzerkia ikustera joan ziren Unibertsitate Laboralera.


BERTIKALAK: 1. Beti bustita dagoen gorputzaren atala.  
2. Hitzer esanahia aurkitzeko erabiltzen da.  
3. Eguzkitik gertu dagoen planeta.  
4. Tenista ospetsu baten izena.


HORIZONTALAK: 1. Jauna hitza ingelera.  
2. Gizonaren lagunik oherena.  
3. Sendoa hitzaren sinonimoa.  
4. Mahatsez egindako edaria.



Juan Belio

## 3 Aurki itzazu 7 ezberdintasunak





- 1 = morea
- 2 = urdin iluna
- 3 = laranja
- 4 = horia
- 5 = berdea
- 6 = arrosa
- 7 = urdin argia

**Aurkitu hitz hauek:**

Baligrafoa, telebista, armarria, ahea, platera, fitxa, karpeta, ardemagailua, lorea, liburu

b	a	t	b	k	a	r	p	e	t	a
c	o	e	d	e	r	g	g	h	i	h
k	r	i	g	i	m	n	ñ	o	p	q
r	d	e	i	a	s	t	u	v	w	
x	e	b	t	g	i	y	z	a	b	c
d	n	i	x	a	r	b	e	g	g	h
i	a	s	a	e	u	a	u	h	k	l
m	g	t	n	r	a	ñ	g	r	o	p
q	a	a	r	o	a	e	h	o	u	s
t	i	u	p	i	a	t	e	r	a	q
v	i	w	x	y	z	a	b	c	d	e
g	u	g	h	i	j	k	l	m	n	ñ
o	a	p	q	r	s	t	u	v	w	x

**LETRA SOPA** aurkitu 12 futbolista

A	C	A	S	I	L	L	A	S	S
O	L	A	L	S	N	O	P	I	A
B	S	O	R	B	E	T	N	N	R
U	R	O	R	N	A	P	L	I	O
S	O	V	A	L	D	E	S	E	N
Q	R	R	M	V	O	P	C	S	A
U	N	A	Y	O	L	E	O	T	L
E	F	M	E	S	S	I	S	A	D
T	X	O	N	A	P	O	S	A	O
S	E	S	I	V	E	L	A	R	A

Joseba Gomez

Nagusixen eta umien artian desbardinttasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu. Baiña zer gertauko zan galdera bardiña egitten badetsagu nagusixari eta umiari? Horrenbesteko aldia egongo ei da?

## Zelan bizi dozue Eibar Foball Taldiaren igoeria? Espero zenduen halakorik?

### ARIANE 7 URTE

Sorpresa handixa izan da. Foballa ikustia gustoko dot, baiña jolastia ez. Aurrekuan Ponferradinaren aurkaku ikustera jua giñan. Errasti jokalarixa dakat gustoko eta ezagutzen dittut beste batzuk be.

### JON 42 URTE

Oso sorpresa ona, historikua!! Apaltasun osoz heldu dira 1. maillara, eta zeresan asko emango dabe... Aurrekuan Ipuruan izan giñan ospatzen... Ikaragarrixa!!! Zelaixan be izan giñan: argazkixak, muxuak... oso pozik!! Oso une politta!!! Honek herrixari be mesede eingo detsa Jokalarixak, gaiñera, umillak, naturalak dakaguz; apaltasun osoz ibiliko gara 1. mailan.



### ARRATE 7 URTE

Ez jata foballa askorik gustatzen... Etxekuekin jua izan naiz ikustera iñoiz... Aurrekuan etxian jarraitu genduan eta pozik. Seguruenik zapatuan hurbilduko gara jokalarixak ikustera eta ospatzera.

### SONIA 43 URTE

Ni be ez naiz foball zalia, baiña ilusiñoz hartu dogu albistia; ikusi be egin genduan. Poza ekartzen detsa herrixari. Alor ekonomikotik begiratuta be, eragiña ekarriko deskulakuan gagoz. Zapatuan plana urtengo dau seguruenik...

**OHARRA:** ZELEBRAZIÑUAREN AURRETIK EGINDAKUA





## **TANTANEZ TANTAN EIBARREN EUSKARAZ BIZI!**



**Eta horixe aldarrikatu  
genuen eibartarrok  
maiztaren azkeneko  
egunean. Argazkietan  
ikus dezakezuen moduan  
herritar mordoak gerturatu  
zen gantxilla esku artean  
hartzera, Eibarren ere  
euskaraz bizi nahi dugula  
aldarrikatzeko. Eskerrik  
asko parte hartu zenuten  
guztioi eta bi urte barru,  
berriz ere antolatuko  
dugun giza katean, elkar  
ikustea espero dugu.**



## Kaixo oporrak, agur ikasturte!

*Bai, bai, azkenean iritsi dira hainbeste desio genituen oporrak!! Urte osoko lanaren ondoren, hemen dituzue ondo merezitako oporrak.*

*Eta eibartarrok udako oporrak ondo baino hobeto hasteko aukera izaten dugu, oporrak hartu eta berehala ailegatuko zaizkigulako sanjuan jaiak.*

*Ondoren duzue aurtengo jaietako egitaraua; ondo irakurri, lagunekin edo gurasoekin adostu eta gozatu!*



buruhandiak

### Ekainak 20 BARIXAKUA

17.00etatik 20.00etara  
Puzgarriak Untzagan

19.00etan  
Antzerkia Untzagan

20.00etan  
Ballet Eibarres-en  
emanaldia Coliseoan

### Ekainak 21 ZAPATUA

11.00etatik 14.00etara  
eta 18.00etatik 21.00etara  
Joko-tailerrak (modelismoa,  
magia, eszenografia eta mahai-  
jokoak) Untzagan

18.00etatik aurrera  
Zirkomotik jolas-parkea  
Untzagan

### Ekainak 22 DOMEKA

12.30etan  
Ipurua Gimnasia Erritmikako tal-  
dearen erakusketa  
Untzagan

17.00etatik 20.00etara  
Umeentzako puzgarria  
Astixaren eskutik Untzagan

19.00etan  
"Elegants" zirko emanaldia Un-  
tzagan



## Ekainak 23 ASTELEHENA

13.00etan

Estaziño kalean Lizarrako  
Dultzaineroei ongietorria

13.30etan

Udaletxetik pregoia  
eta txupinazoa

18.00etan

Urkizutik erraldoi  
eta buruhandien kalejira

19.00etan

Irulitxa fanfarrearen kalejira eta  
"Vida en B" kale  
antzerkia Untzagan

23.00etan

San Juan Sua, eta Dantza  
Garaikidea taldearen  
emanaldia. Untzagan

24.00etan

Nagusien danborrada

## Ekainak 24 MARTITZENA

19.00etan

Urkizun, Umeen  
Danborradaren irteera

20.30etan

Umeen pregoia, Umeen  
Daborradako Danbor  
Nagusiak irakurrita,  
eta Alardea. Untzagan

23.30etan

Soka Dantza Untzagan,  
Usartza Txustulari Banda eta  
Kezka Dantza Taldearekin

24.00etan

Suzko erroberak Pirotecnia As-  
tondoaren eskutik

## Ekainak 25 EGUAZTENA

11.30etan

Marmitako lehiaketa

18.00etan

Untzagatik "Afrika Baj Yah" tal-  
dearekin kalejira

19.00etan

Urkizutik kalejira  
Lizarrako Dultzaineroekin

19.00etan

Untzagan "Astokillo"  
umeendako antzerkia  
Pantarhei taldearen eskutik

19.30etan

Euskal Jaialdia herri kirol  
erakustaldia, Untzagan

23.00etan

Suzko erreoberak, Pirotecnia Va-  
lecearen eskutik





## TXOTXONGILOEN ANTZOKIA

### OSAGIAK:

- Kartoizko kaxa bat
- Oihal zati bat
- Zotz bat
- Koloretako errotuladoreak



### PAUSOAK:

#### Lehen urratsa

Kaxaren tapetako bat itsatsi, eszenatokia egiteko, eta bestea tolestu gorantz, marquesina egiteko. Ez ahaztu zuen antzokiaren izena bertan idaztea!

#### Bigarren urratsa

Oihal zatiaren goiko aldean tolestura egin eta pasatu bertatik zotza, teloia egiteko. Kaxaren aldeetan zulotxoak egin, zotza bertan sartu eta eusteko.

#### Hirugarren urratsa

Marrazki, koloretako paperak edo nahi duzuen erabili zuen antzokia apaintzeko.

#### Laugarren urratsa

Txotxongiloak egiteko, etxean dituzuen panpinak edo zuen atzamarra erabil ditzakezue, edo baita egurrezko koilaratxoak ere. Margotu aurpegitxoak bertan eta aurrera! Ilea, erropa edo txapelak ere egin ditzakezue.



# etxeko SUKALDARIA

## MARMELADAZ BETETAKO ENPANADILLAK




Normalean ohituagoak gaude enpanadilla gaziak jatera. Baina jaki honek bestelako hainbat aukera ere eskaintzen dizkigu: adibidez, jaki gozoz betetzea. Honakoan marmelada aukeratu dugu, baina nahi duzuen beste edozer ere izan daiteke. Zartagina erabili behar denez, helduek lagunduta egin.

### OSAGAIAK

- ✓ 12 enpanadilla-pasta
- ✓ Marrubizko marmelada
- ✓ 100 gr. bustitzeko gazta
- ✓ Azukrea
- ✓ Kanela
- ✓ Olioa

### Pausoak:

- 1.- Enpanadilla-pastetan, erdikaldean, koilarakada bat gazta eta koilarakada bat marmelada jarri.
- 2.- Busti pixka bat pastaren ertzak, eta itxi enpanadillak erditik tolestuz. Nahi izanez gero, sardexka batekin markatu ertzak.
- 3.- Olio ugari berotu su bizian. Bero dagoenean, enpanadillak botatzen joan. Urre kolorea hartzen dutenean atera eta sukaldeko paperaren gainean jarri, olio kentzeko.
- 4.- Plater batean bota azukrea eta kanela eta enpanadillak bero daudenean bertan pasatu. Edo nahi izanez gero, azukre-hautsez hautsez tatu.



## horoskopoa

### ARIES

Segi lurrera begira; seguruenik txanpon bat edo beste aurkituko duzu-eta. Gorde Sanjuanetan gastatu ahal izateko.

### TAURUS

Eskolako lagunek asko maite zaituzte, zuk batzuetan kontrakoa pentsatu arren. Lagun onak dituzu benetan.

### GEMINIS

Ondo merezitako oporrak hartuko dituzu eta, izarrek diotenez, oso opor zoragarriak pasako dituzu. Lagun berezi bat egingo duzu.

### CANCER

Kasu gehiago egin gurasoei, bestela... Sanjuanetan izango duzu zertan jardun: barrakak, kalera irten, zerbait erosi...

### LEO

Kirola egitea oso lagungarria da, baina neurrian, astakilo! Lasaiago hartu, nekatu barik. Gorde indarrak oporretarako!

### VIRGO

Datozen asteotan zure kolorea gorria izango da eta 8 zenbakiak zortea ekarriko ditu. Lagun berriak egingo dituzu gainera.

### LIBRA

Lan asko egin duzu eta jaso duzu lan horren emaitza. Zorionak! Ez ahaztu gauzak ez direla berez etortzen: ahalegina egin behar da.

### SCORPIUS

Ikasturtea amaitu da eta atsedena dator orain. Baina ez ahaztu, oporretan, atsedean hartzeaz gain, etxeko lanak ere egin behar direla.

### SAGITARIUS

Non dago kamiseta gorria? Gela txukun lagatzen ez baduzu, zelan topatuko duzu nahi duzuna ba? Txukundu gela behingoz!

### CAPRICORNIUS

Gauzak konpondu txarrera egin baino lehen. Hitz egiten konpontzen dira gauzak, baina denbora larregi pasatzen utzi gabe. Animo!

### ACUARIUS

Aprobetxa itzazu asteburuak eta eguraldi ona kalean jolasean jarduteko. Oporretara joan eta lagun asko egin!! Merezki duzu-eta.

### PISCIS

Ez abestu kalean ahots horrekin, amonaren batek baldekada bete ur botako dizu-eta!! Pozik bazaude ere, besteen belarriak zaindu!



Bienvenido/a a la Fundación Cristina Enea

crisrinaenea fundazioa

Término de búsqueda

[ Búsqueda avanzada ]

→ INICIO

- FUNDACIÓN CRISTINA ENEA
- CENTRO DE RECURSOS MEDIO AMBIENTALES
- NATUR TXOKO DE URGULL
- CENTRO DE INTERPRETACIÓN DE ULIA
- OBSERVATORIO DE LA SOSTENIBILIDAD
- OBSERVATORIO DE LA BICICLETA DE SAN SEBASTIÁN
- GABINETE DE PRENSA
- BUZÓN VERDE

Y TÚ, ¿CÓMO LO HACES?

Hazte amigo

### FUNDACIÓN CRISTINA ENEA

Fundación Cristina Enea trabaja en la concienciación y sensibilización de valores ambientales y de sostenibilidad. Para ello, cuenta con dos herramientas principales: el Centro de Recursos Medioambientales y el Observatorio de la Sostenibilidad, ambos ubicados en el parque Cristina Enea de Donostia-San Sebastián.

#### NOTICIAS

06/06/2014  
Sesión de cuentacuentos este domingo en Cristina Enea

03/06/2014  
Semana Verde 2014

02/06/2014  
Presentación del documental BASO AHAZTUAK en Cristina Enea

30/05/2014  
Ziklobia: este domingo las bicicletas tomarán la carretera

28/05/2014

#### AGENDA

04/06/2014  
Mujeres, semilla y futuro del desarrollo de la tierra

01/06/2014  
Concierto de clásicos este domingo en Cristina Enea a cargo de un trio de cuerdas

25/05/2014  
Concierto de primavera

25/05/2014  
Hazienda en la calle Easo

25/05/2014

2014 Junio

L	M	X	J	V	S	D
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
						30

Enarbólate

interpretazio zentzua

ULIA

Proyectos

matematika

## www.cristinaenea.org

Cristina Enea Fundazioak ingurumenaren inguruko kontzientzia eta sentsibilizazioaren inguruan egiten du lan. Donostian dago jauregi dotorea eta bisitan ere joan zaitezke. Oso ingurune polita dauka; ikusiko duzue. Hainbat kanpaina egiten dituzte urtean zehar: birziklapena, bizikleta erabiltzeko ekimenak, erakusketak, ikastaroak... Baina, web orri honetan sartzeaz gainera, joan zaitezte bertara, mezezi du-eta.

## www.matematikalantzen.wikispaces.com

Web orri hau 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduta dago. Gaztetxoagoak zaretenok itxaron egin beharko duzue apurtxo bat web orri hau erabiltzeko. Baina, bilatuz gero, interneten aurkituko dituzue zuen adinerako orriak. Honako honetan matematikako hainbat ariketa aurkituko dituzue: zatikiak, angeluak, gorputz geometrikoak... eta, horrez gain, buruhausteak edota asmakizunak ere bai.

## MATEMATIKA LANTZEN

- Wikien hasiera orria
- Aldaketa berriak
- Pages and Files
- Bazkideak
- Eztabaida

Bilatu


home

matematika lantzen

Wiki hau matematika lantzeko erabiliko dugu. Hemen ariketak auki ditzakegu, azalpenak, denborapasa...

WIRIS, calculadora en red

12 2014KO EKAINA



## KAMILE IGERILEKURA DOA

Gaur Kamile oso pozik dago. Telmo egun-pasa dator etxera eta, gainera, aitak eta amak igerilekura eramango dituzte. Oso dibertigarria da guztiok elkarrekin igerilekura joatea. Baina Telmo berandutzen ari da, eta Kamile urduri dago.



## AITA DESPISTATU BAT

Nire aita despistatu hutsa da. Izugarriak dira hari gertatzen zaizkionak. Batzuetan zapata bakar batekin joaten da lanera, edo nire kanika jokoan eramaten du otartekoaren ordez.



## ERREPIDEA

Karabana batean bizi bazara, ohituta zaude toki batetik bestera ibiltzen. Ama bere buruarekin berbetan hasten denean, badakit laster hanka egingo dugula. Ohituta nago ia aldi berean "kaixo" eta "agur" esaten. Horregatik saiatzen naiz inorekin lotura esturik ez sortzen. Paso.




## BAT PAT - ETXE SORGINDUA

Kaxoi bat pat naiz. Ileak lazteko moduko istorio bat kontatuko dizuet... Prest zaudete? Zuek zer bisitatu izaten duzue oporretan zaudetenean? Mamuenak diruditen erretratuz betetako museoak? Parke abandonatuak? Armadura mehatxagarriak dauzkaten gazteluak?



## JARA

Jarak 13 urte ditu. Ume izateari laga eta emakume bihurtzen hasi da. Baina egoera berri horrek gorputzean eta, batez ere, buruan hainbat aldaketa eragingo dizkio. Gurasoekin haserre, lagunen konplizitatea, errebeldia, pozak eta tristurak...



## MAITAGARRIA ETA DESIOA

Hona hemen maitagarri bati lagundu zion neskato baten istorioa. Maitagarriak, esker onez, dohain bat eman zion: bere edozein desio beteko zuela. Hitza eman zion: maitagarri hitza.

## ATSOA ETA PETRIKILOA

**H**eri txiki batean atso zahar-zahar bat bizi zen. Jakingo duzueenez urte asko hartzeak ondorio txarrak dakartza ezinbestean eta atso hark ikustmena ia galduta zeukan. Kontua da aurrekorik ere ez zuela ikusten. Metro batera... zerbait zegoela bai...

baina ezin zituen behia eta zaldia bereiztu. Arazo horrekin kezkatuta petrikilo ospetsu batengana joan zen. Petrikiloak goitik eta behetik begiratu ondoren, osatuko zuela agindu zion. Baldintza bakarra bete beharko

zuen atsoak: tratamenduak zirauen artean begiak itxita eduki beharko zituen.

Bost axola berari. Atsoak pozik onartu zuen sasi-medikuaren proposamena.

Hitzartutako eguna iritsi zenean, petrikiloak edabe miragarria prestatu zuen eta atso

itsuak edan. Atsoa begiak itxita geratu zen aulki batean eserita. Bien bitartean, petrikilo maltzurak atsoaren etxeko koadroak, bitxiak, altzariak eta alfonbrak ohostu zituen.

Etxea hustu zuen, balioko gauza guztiek hegaz egin balute bezala.

Ordu batzuren buruan atsoak begiak zabaldu eta, bai, ikustmena berreskuratu zuen: ederki ikusten zuen petrikiloa, bere aurrean, patxada ederrean eserita.

- "Tira, sendatuta zaude, honenbeste diru zor didazu", esan zion petrikiloak.

Atsoa, ordea, builaka hasi zitzaion:

- "Nik zuri ordaindu? Ezta txanpon bat ere. Ordaindu beharrean, epaitegira eramango zaitut, lapurra halakoa! Ez, ez dizut ordainduko ez nauzulako osatu. Are gehiago, nire gaitzak okerrera egin du. Lehen etxeko altzariak, koadroak, bitxiak eta alfonbrak primeran ikusten nituen; orain, ordea, ezin ditut ikusi".

Horrela geratu zen

kontua. Atsoak ez zion ordaindu petrikiloari, eta petrikiloa, hala ere, pozik.



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**

## MUTIL TXIROA ETA MASKORRAK

**B**ehin batean, mutil txiro batek, bapo bazkaltzen ari zen gizon talde batekin egin zuen topo. Mutilari adurra zerion. Gizon guzti haiek maskorrekin apainduta zeuden. Maskor gehien zeukan gizona hurbildu zitzaion; herriko buruzagia zen eta


harrokeriaz hitz egin zion:

- "Hi zaparro! Ikusi al duk sekula honenbeste maskor?"

- "Egunen batean zuk baino gehiago izango dut", erantzun zion mutikoak.

Gizonak barre egin zion eta, handitasuna erakutsi nahian, oskol zatitxo bat jaurti zion lurrera.

Zatitxoaren truke mutilak mandarina atal bat lortu zuen azokan. Atala lurperatu eta lo geratu zen. Esnatu zenean zuhaitz ikaragarri bat ikusi zuen bere ondoan. Tximuen pare




igo zen adarretan gora eta iratxoak aurkitu zituen goian. Iratxoek, mutikoa gosetuta zegoela ikusirik, jatera gonbidatu zuten eta bazkalostean bi gauza eman zizkieten: maskorrez beteriko zaku bat eta aizkora bat. Maskorrak buruzagi harroa txunditzeko eta aizkora zuhaitz erraldoia mozteko, izan ere, gizakiari ez zaió erakutsi behar iratxoenganako bidea.

Hankak lurrean jarri zituenean, zuhaitza moztu zuen eta ondoren, herriko buruzagiarengana jo zuen.

- "Zer, gazte? Bildu al duk maskorren bat?", botá zion gizonak. Poltsako oskol piloa erakutsi zuenean, herritarrek ahozabalik geratu ziren, aho-zabalik baina mutu. Hitza berreskuratutenean, mutila herriko buruzagi berri izendatu zuten.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**



**zu margolari!**